

ENERGIA BERRIZTAGARRIEN KOMUNITATEA ELGETAN

7.SAIOA

DATA: 2023-01-11
PARTAIDEAK: <ul style="list-style-type: none">- Herritarrak: 12 parte hartzaile- Udaletik: Ibai Larrañaga (Ingurumen zinegotzia)- Goiener: Oier Etxeberria- Emun: Ihabar Arriaran, Uxune Alustiza

ENERGIA LANTALDEA

Energia lantalderako proposamena ekarri du Oierrek.

- Alde batetik, Elgetako Goienerreko bazkideen kontratuak hartu dituzte oinarri, eta kontsumoen irakurketa bat egin dute. Datu erreal horiekin instalazio fotovoltaiko bat egiteko azterketa ere azaldu digu, adibide bezala.
- Beste alde batetik, esku artean dugun frontoiko instalazioa oinarri hartuta, energia lantaldera aurreko saioan ekarritako excela erakutsi digu eta negozio ereduaren proposamena azaldu du.
- Azkenik, instalazioetako energia banaketa nola egin, kudeaketa moduak, eta kooperatibara ordaintzeko tarifaren aukera eta irizpide ezberdinak aurkeztu ditu.

Hurrengo saiorako, irizpide horien aukera zehatzak landuko dituzte energia lantaldekoek eta proposamen bat landuko dute. Horrekin batera, proiektuaren zenbaki errealekin proiektua irudikatzen hasiko dira, aurkezpen egunean aurkezteko materiala eta ezagutza edukitzeko.

LANTALDE JURIDIKO - ADMINISTRATIBOA

Ibaik lantaldeko etxeko lanen berri eman digu.

- *Certificacion negativa* eskaera eginda dago – ez dute erantzunik eman.
 - o Lehenengo izen bezala: Elgetako energia komunitatea.
- Otsaileko plenotik pasako da udala bazkide laguntzaile izateko proposamena.

Estatutuen proposamena berriro errepasatu dugu - Ez da ekarpenik egon.

Estatutuen azken dokumentua idaztea da hurrengo pausua.

KOMUNIKAZIO LANTALDEA

2023/01/10ean bilera izan dute lantaldekoek eta bertan erabakitakoen berri eman digu Enaitzek.

Izena

Izenaren lanketa egin da eskolan, eskatu bezala. Umeek eginiko 10 izen proposamen jaso dituzte, bertatik 3 izenen aukeraketa egin dute komunikazio lantaldekoek, eta, ondoren, whatsapp talde orokorrera bidali dituzte galdetegi formatuan, bertan erabakitzeko. 3 izen proposamenak eta atzora arteko bozketa horrela dago:

- Ixotu – 10 boto
- Eneberri – 3 boto
- Enelgeta – 0 boto

Aurkezpen ekitaldia

Noiz egin zalantza izan zuten eta proposamena otsaila bukaeran egitea da, kooperatiba sortzeko prozesuan edo sortuta dagoen horretan.

Zergatik? Hasierako bileretara jende dezente agertu zen, eta, agian, itxiago espero zituzten gauzak; lan handia zegoela egiteko ikusi zuten. Itxiago edo eginago eraman nahi dira lanak aurkezpen honetara, nahiz eta oraindik parte hartzeko aukerak daudela ere adierazi nahi den. Izan ere, aurkezpena aprobetxatu nahi da jendea bazkide egiten hasteko eta baita lantaldera batzeko ere.

Kooperatiba azalduko da aurkezpen horretan (protagonismoa kooperatibak) eta proiektuari emango zaio bere lekua.

Aurretik egin beharreko lanak:

- Logoa + kolorea – Izenarekin batera erabiliko den logoa/irudia egingo da eta erabili beharreko koloreak zehaztuko dira.
 - o Koldo Izagirri eskatu zaio proposamena egiteko eta baietz esan du.
 - o Enaitzek egingo du jarraipena.
- Herriko elkarteekin bilerak egingo dira. Aurkezpena begira, difusioa egiteko eskatuko zaie eta zuzendaritza taldeetako kideak bertan presente egotea.
 - o Jubilatutako elkartearekin egongo dira.
 - o Guraso elkartearekin.
 - o Kirol elkarteekin bilera (mendi elkartea, mendi korrikalariak, motorra...)
- Enpresa, taberna, komertzio, elkarte gastronomiko, baseritarren kooperatiba eta elizarekin saio ireki bat egingo da. Gonbidapena bidaliko diete komunikazioko taldekoek eta Goienerekin bideratuko du bilera, eta komunikazioko EBK azaldu.
- Komunikabideei jakinaraziko zaie.
 - o Goiena
 - o Diario Vasco
- Alderdi politikoekin egongo dira:
 - o Hurrengo urteetan proiektua bultzatu eta babesteko konpromisoa eskatuko zaie alderdi guztiei, hauteskudeen emaitza edozein dela ere.
- Aurkezpen bat landuko da bilera guztietan berdina erabiltzeko, azalpen orokor bat jasoko da bertan. Ondoren bilera guzti hauek lotzen hasiko dira.

BESTELAKOAK

Ibaik D2030ek auzeratuak Debagoieneko energia kontsumoaren diagnostikoaren datu batzuk partekatu ditu. Herritarren energia kontsumoa (etxeetako) eskualdean

kontsumitzen den energia guztiaren %10 inguru bakarrik da. Beste dena enpresek eta garraioak.

Horrekin batera D2030etik egindako eskaera bat ere egon da. IDAEn diru laguntza eskaera egingo dute eta Elgetako komunitatetik buruan izan ditzakegun proiektuak zerrendatzeko eskatu digute, diru laguntza horretan sartzeko. Whatsapp orokorretik ideiak jasotzeko tarte bat utziko da eta Ibaik erantzungo dio ondoren.

ITXIERA

Hurrengo saioa otsailaren 1ean, 18:30etan izango da.

Estatutuen azken proposamena ekarriko da eta horrekin batera aurkezpen ekitaldirako etxeko lanen errepassoa egingo da.